



Parte-hartzeak adierazpide ugari ditu. Zuen ikastetxeak udalerriko hondakin solidoen gestioan parte hartzeko ariketa bat proposatzen dizuegu hemen.



Zaramarekin bueltaka

Behaketa fitxa

Laginketaren eguna:

Biltontzien kokalekua (kalea eta zenbakia):

Biltontzi kopurua:

Biltontzi motak:

Papera Ontziak Beira Gainerako Zarama

Biltontzien egoera: Beteta Erdi beteta Hutsik

Kontserbazio-egoera: Berriak Zaharrak Apurtuta

Badago biltontzietan egon beharko ez lukeen hondakinik? (papera biltontzi urdinetik kanpo; kristala biltontzi berdetik kanpo...):

BAI EZ



AUZOKO hondakin-biltontzien egoeraren segimendua egitean datza jardura: ondo erabiltzen diren ala ez, nola gestionatzen diren, eta abar.

Lehenengo urratsa: zenbat biltontzi daude auzoan?

Saio bat edo batzuk beharko dituzue zuen auzoko kaleetako biltontzien berri jakiteko. Biltontzien kopuruaren eta gure kontsumo-ohituren arteko erlazioak ezartzen ere saia zaitezkete.

Bigarren urratsa: hiriko hondakinei buruzko ikerketa

Atal honetan, behar dugun informazioa eman ahal diguten galderak prestatuko ditugu. Galdera sortari fitxaren taxua emango diogu, ikasleei banatu baino lehen. Zenbat eta fitxa gehiago banatu, orduan eta informazio zehatzagoa lortuko dugu geure hiri, herri edo auzoko biltontzien egoerari buruz (beste maila batzuetako ikasleek ere hartu ahal dute parte). Ezkerrean duzue diseinatu ahal duzuen fitxaren adibide bat.



Materialak birziklatzeko instalazio bat edo zabortegiren bat bisitatzea oso interesgarria da gure inguruan sortzen dugun zaramaren eragina ulertzeko.

Hirugarren urratsa: segimendua

Galderei erantzun ondoren, “erne” ibili beharko dugu ikerketa-aldira-ko (astebete edo hamar egun) ego- kitu zaizkigun biltontziekin; horre- tarako, egunero ordu berean jasoko ditugu datuak (onena gauzez egitea da, zarama jasotzen duen kamioia igaro baino lehen). Bakoitza bere etxetik edo ikastetxetik hurbilen dauden biltontziez arduratu daiteke, segimendua ahalik eta zehatzena izan dadin.

Laugarren urratsa: nora doa biltontzien edukia?

Ikertu nora doan biltontzi bakoit- zaren edukia. Era berean, interes- garria litzateke, besteak beste, zabortegiren bat eta papera birzi- klatzeko lantegiren bat bisitatzea eta, adibidez, beira birziklatzeko prozesua ikustea.

Bosgarren urratsa: txosten orokorra

Orain, prest gaude jada honako galdera hauei erantzuteko:



Zabortegiak ez dira zarama tratatzeko bide jasagarria. Zabortegietan metatu beste xederik ez duten hondakinak ahalik eta gehien murriztu behar dira. Irtenbidea hondakin gutxiago sortzea da.

- Zein biltontzi betetzen dira arinen? Zergatik?
- Astean zenbat bider jasotzen dute zarama?
- Ondo erabiltzen ditu jendeak biltontziak?
- Aurkitu duzue biltontzi gutxiegi dituen kale edo alderik?

Erantzunekin, txosten orokor bat edo zatikako hainbat txosten

presta ditzakezue, eta Udaleko Ingurumen Arlorako edo Kontseilurako eraman, ikerketa-prozesuan atera dituzuen ondorioak azaltzeko gutun batekin batera, bildu duzuen informazioa zaramaren bilketa-sistema hobetzeko aprobetxatu dezaten. Honelako lanetan zeuk erantsi nahi dituzuen aldaera guztiak egin daitezke.